

KARMEL SORTA  
Zuzendari: Julen Urkiza



AITA GABIREL JAUREGI URIBARREN  
(1895-1945)


Edizioaren prestatzaile:  
JULEN URKIZA

© Ediciones El Carmen (KARMEL)  
I.S.B.N.: 84-7305-077-0  
Legezko gordailua: S.S. 299/95



Laguntzaz

Markina  
1995



KARMEL SORTA - 7

## AURKIBIDEA

Aurkibidea .....	7
Hitzaurrea .....	11

## I. BIZITZA ETA GARAIA

Euskal Herriko eta munduko 50 urteko kronologia (1895-1945) <i>J. Urkiza - A. Lobera</i> .....	17
Gabirel Jauregiren bizitza <i>J. Urkiza - P. Uribarren</i> .....	71
Gabirel Jauregiren giza zertzeladatxoak <i>L. Baraiazarra</i> .....	105

## II. IDAZLANAK

Gabirel Jauregiren Bibliografia <i>J. Urkiza</i> .....	111
Pisia <i>J.R. Etxebarria</i> .....	115
Kimia <i>J. Iturbe</i> .....	123

Gabirel Jauregiren lanak astronomiaren arloan <i>Txema Preciado Saez de Ocariz</i> .....	131
Aita Gabirel itzultzaile <i>A. Lobera</i> .....	135

### III. BERAREN HERRIA: ARAMAIO

Historia <i>J.R. Elejalde</i> .....	151
Erlijiotasuna Aramaioko haranean orain dela ehun urte <i>A. Unzueta</i> .....	159
Euskal idazleak <i>L. Baraiazarra</i> .....	167
Bizkaiera <i>G. Garate</i> .....	183
Euskara <i>Isaak Atutxa Etxebarria</i> .....	215
Hizkuntz errealitateaz <i>Patxi Salaberri Muñoa</i> .....	253
Hikako berbetea Aramaioko Muxika-Olaetan <i>Pedro Puxana</i> .....	261
Toponimia <i>Patxi Uribarren</i> .....	277
Auzotasuna edo nekazal hiritartasuna <i>J. Martinez Montoia</i> .....	325
Euskal Jaiak Aramaion (1899) <i>Patxi Salaberri Muñoa</i> .....	331
Musikariak <i>Floren Unzueta</i> .....	345
Ze kolore ezauketan dozu? <i>Txema Preciado de Ocariz</i> .....	351

### IV. GEHIGARRIAK

"Karmen'go Argia"ko G. Jauregiren idazlanak <i>A. Lobera - J. Urkiza</i> .....	361
Izadi - Iztia .....	369
Kimia .....	429
Pisia .....	443
Enparaukoak .....	467
Aita Angelo Jauregiren "Karmen'go Argia"ko Idazlanak <i>A. Lobera - J. Urkiza</i> .....	481
Testuak .....	489

## EUSKAL JAIK ARAMAION (1899)

Gabriel Jauregi Uribarrenek lau urte zituenean, Antoine d'Abbadie irlandar-euskaldunak Euskal Herrian sortutako Lore-Jokoen tradizioari helduz, Aramaio hautatu zuten Euskal Jaiak Araban ospatzen hasteko xedearekin.

### EUSKAL JAIK

Ezaguna denez, Lore-Jokoak eta geroago ia sinonimotzat hartuko ziren Euskal Jaiak, batez ere poesia bultzatzeko lehiaketa gisa antolatu ohi ziren. Sariketara aurkeztutako lan idatzien artean aukeratua suertatzen zenari berebiziko garrantzia eskaintzen zitzaion, bai sariaren balioagatik eta bai jendaurrean eskuratzen zuen ospeagatik. Haien ondorio izango ziren makina bat bider ezpainetan izan ditugun Elizanburu, Zaldubi, Larralde eta beste hainbat koblakari trebe.

Baina, aldi berean, Euskal Festok ezin parada aproposagoa bilakatu ziren ohiturak eta bestelako herri-manifestazioak argitara ateratzeko.

Ildo horretatik, eta betiere poesia-sariketek jaien erdigunea osatzen zutelarik, apurka-apurka finkatzen eta ohiko bihurtzen joango ziren txapelketa eta froga ezberdinak antolatu ziren Lore-Jokoen aitzakipean. Horrela, bada, jai-giro berezian burutu ohi ziren euskal dantzen sariketak, pilotarien txapelketak, pedardunenak, irrintzilarienak, txistulari-albokarienak, etab.

1879rarte jaiok urtero herri bakar batean ospatzen ziren arren<sup>1</sup>, Elizondora etortzearekin batera, beste herri batzuk ere ekin zioten helburu eta eduki berdintsuak zituzten jaiak antolatzeari. Horrela antolatu ziren, esate baterako, 1880an Donostian, Beran, Maulen,...., 1881ean Donibane-Lohitzunen, Donostian, Irunen, etab.

<sup>1</sup> Urruñan (1853-1863), Saran (1864-1876), Donapaleun (1877), Saran (1878) eta Elizondon (1879).

Aitortu beharrekoa da, dena den, 1876tik aurrera, gerra bukatuta eta galduta zegoenean, Foruak erabat deuseztaturik eta etsipenak gainditu ezinezkoa zirudienean, Euskal Jaiak itxaropen-zantzua ekarri ziotela euskal gizarteari, beraien inguruan hasi baitziren ardatzen eta bilbatzen gero "Bizkunde" deituko zuten kezka eta mugimendu ideologikoa, kulturala eta errebindikatzailea.

Garai hartako poesietan antzeman daitekeen legez, sariketetako derrigorrezko gaiak euskal gizartearen etsipen eta, aldi berean, itxaropenaren adierazgarri baino ez ziren: euskara, foruak, ohitura zaharrak, etab.

Aramaion 1899ko irailaren 9an eta 10ean burutu ziren Euskal Jaien sustraiek erreka beretsuan zeukaten elikagaia.

### ARAMAIOKO EUSKAL JAIEN ANTOLAMENDUA

Abbadie 1897an hil bazen ere, haren alargunak ez zion utzi senarrak harturiko konpromezu euskaltzaleari eta bere dirutik ordaindu zituen Aramaioko jaialdietan sortutako gastuak eta sariak. Jaien antolamendua, berriz, R.M. Azkue euskaltzaleak<sup>2</sup> bideratu zuen, herria hautatzeko ardura berari bizkarreratu baitzioten, ondoko testuan aitortzen duen legez:

Bere alargunak [Abbadierenak, alegia], gure albistari onen Artezkariaren bidez, bete gura izan dau senarrak al izan ezebana, Aramaiona-ko ibar ederra onetarako aukeratuaz (*Euskalzale*, 1899-VIII-24)

Alabaina, egia da Azkuek ez dituela Aramaio aukeratzeko arrazoiak garbi azaltzen. Araban egin behar zirela bai, baina besterik ez:

Ogetaz urte onetan Abbadie-ko euskalzale iakitun zaldun aberatsak Euskalerriko zazpi aldeetan eragin dauz euskal-iaialdiak. Araba-ko lurtean aurten-arte eztira iñoiz egin. Bein baiño sarriago erakutsi eban berak Araba-rako gogoia, baiña gogo au bete-aurretik il zan (*Euskalzale*, 1899-VIII-24)

Hortaz, zinez pentsa liteke bestelako arrazoirik ere otu zitzaiola Arabako herri hautata Aramaio suerta zedin.

Iturri ezberdinen arabera, Vicente Goikoetxea abade eta konpositore aramaiarra (1854-1916) izan zen arrazoi bihurtuko zitzaizkion horien berri eman zion adiskidea. Eta ez zen makalena izango, inolaz ere, Aramaio Arabako toki euskaldun huts bakarra izatea. Horrezaz gain, Aramaio geografikoki haran batean sartuta egotean oso erakargarria

<sup>2</sup> Garai hartan, Bizkaiko Aldundiak 1888an Bilboko Institutuan sortutako euskarazko katedraren arduraduna izaten jarraitzen zuen Azkuek (1864-1951). Jakina denez, Sabin Arana Goiri eta Unamuno aurkako zituela irabazi zuen katedra horrek kultur munduan buru-belarri sartzeko aukera eskaini zion lekeitiarrari. 1899rako ezaguna eta prestigio handikoa zen Azkue euskaltzaleen artean (Abbadie barne). Ordurako argitara emanak zituen *Euskal Izkindea- Gramática Euskara* (1891), *El Euskera o el Bascuence en 120 lecciones* (1897) liburuak. Edonola ere, hiru urtez zuzendu zuen *Euskalzale* astekaria (1897-1899) izango zen herri xehearen artean benetan ezagutaraziko zuena.

bihurtzen zen Azkuerentzat, etnografikoki eta linguistikoki -bai Azkueren gustokoa!- beste herri asko baino itxiagoa eta gutxiago kutsatua agertzen baitzen.

Beraz, herriari buruzko ezaugarri hauek guztiak gogoan zituela, Azkuek ez zuen gehiegi luzatu Aramaio aukeratzeko erabakia.

Euskal Jaiak ospatzeko herria begiztatu ondoren, garai hartan Valladolideko katedraleko kapera-maisu bezala zegoen Goikoetxeari idatzi zion Azkuek guztiaren berri emanez eta jaialdiatarako meza bat konposatzeko iradokizuna eginez. Meza konposatzeko enkargu ofiziala Aramaioko Udalbatzak egingo zion handik egun batzutura.

Dena behar bezala zihoala zirudien arren, azken unean, ordea, Goikoetxea gazteegia edo maila apalagokoa ikusten zutelako nonbait, udalbatzak Goikoetxearen musika-irakasle izandako Felipe Gorritiren (1839-1896) *Si bemol-*eko Meza kantarazi zion Otxandioko abesbatzari, aramaioarrak prestatutakoa bertan behera utzi zutelarik.

Goikoetxeari egindakoaz jakin ondoren Azkue "odol gorri"-ak hartu zuen haserraldian jaiak geldiarazteko zorian izan zen. Mantendu baziren, ordurako hegoaldeko lau lurraldeetako prentsak iragarriak zituelako izan bide zen.

Hurrengo egunetan Euskal Jaien berri *Euskalzale* aldizkarian ematean, Azkuek ez du ahaztuko Aramaioko Udalbatzaren ziztrinkeria ez eta guztiaren eragilea izan zen bazter-nahaslearena ere:

Meza-arazoan, moldakatxak izan ezpadira bere, ganora gitxitxu euki dabe atarako arduradunak. Erriko seme argi bati mesedez eta arrenka eskatu iakon Meza barri bati egin eiala jai onetarako; eta Mezea eginda gero, *muzika*-guzetan baiño osabedarren barri geiago dakian baten bitartez, ez Azpeitiarrik ez Bitoriarrik etzan etorri Meza ori entzun-eragitera (*Euskalzale*, 1899-IX-27)

Eta ez da hor geratuko udaletxeak egindakoaren kritika, nonnahi aurkitzen baitu lekeitiarrak zirikatzeorik. Arrazoiz ziurrenik, sariak banatzeko eraiki zuten oholtza ere kritika horren erdiunea izango da:

Udaletxe edo *Ayuntamiento* -koak, ezetarako bear etzala, gure ustez, euren Etxe ederreko pendiz edo *balkoe* pean bizien zerraldoa zirudien zerbait, egin eben; andik epaila edo *juez* ak sariak emoteko (*Euskalzale*, 1899-IX-27)

Oro har, 1899ko Aramaioko Euskal Jaietan burututako txapelketak ohikoak izan ziren: abereena (abelgorriena, batetik, eta zurdadunena, hots, zaldi-behorrena, bestetik), musika-tresnena (alboka eta txistua), bertsolariena, dantzariena (aurrekua eta ezpata-dantza), irrintzilarriena eta lasterkariena. Emakumeek ere frogara pare bat izan zuten bertan (pegardunena eta gorularriena).

Horrelakoetan zeharo errotu eta finkaturik zegoen pilota-txapelketa, ordea, ez zen Aramaionako jaialdiatarako eratu. Arrazoa nabarmena zen: herrian ez zegoen pilota-lekurik.

Era berean, geroago herri-kiroitzat hartu izan diren idi-demak, ahari-topaketak eta abereekin egin ohi ziren bestelako lehiaketak erabat bazterturik gelditu ziren jaiotatik.

Gogora dezagun, bestalde, Euskal Jai hauetako "koblakari" edo poeten sariketa egun batzu lehenago erabaki zela ulerterrazak diren arrazoiengatik: ez zen bat-batean buru zitekeen saioa, behar-beharrezkoa baitzen epe luze samar bat bertsoak idatziz prestatzeko eta aurkezteko, aurkeztutakoen irakurketa eta onenen hautaketarako, etab.

Banaturako sariak ohikoak izan ziren, emakumeen lehiaketetakoak -berezikiariaren harrigarria!- gizonezkoenetakoa baino apalagoak gertatu zirelarik. Prestakuntza eta trebetasun gehiegirik eskatzen ez zuen zantzolarien sariketa hutsal samarrean, esate baterako, gorularienean baino diru kopuru gehiago eskaini zitzaizen irabazleei.

Ikuslegoari dagokionez, azpimarratu beharrekoa da egun horietan bertaratutako kanpotarren artean arrasatearrak izan zirela nagusi Aramaioko kaleetan:

Mundragoe egun orretan, batez bere bigarrenean, Aramaio beteteko ustu zan. (*Eus* -27)

Jende-mugimendu horren arrazoia Euskal Jaien ospean bilatu beharko litzateke ziu-rrenik. Hauen arrazoia, halere, hiru urte lehenago, 1896an alegia, Arrasaten ospatutako Euskal Jaien arrakastan letzake inondik ere. Adurrak horrela agindua nonbait, gero Aramaion poeten sariketan irabazle suertatuko ziren Felipe Arrese Beitia eta Jose Artola ere sarituak izan ziren harako hartan.

## LEHENENGO EGUNA

1899ko irailaren 9an, goizeko zortziretan, abereen feria eta erakusketari eman zitzaion hasiera, banaturako sariak honela gelditu zirelarik:

Abelgorriak		
Herri-behi esnetsuena	Antonio Ibabe	60 pzta.
Zekorrik onena	Pedro Pagaldai	30 pzta.
Zurdabereak		
Behorrik onena (umea eta guztiz)	Felipe Larrea	60 pzta.
Urte biko moxal edo txikorik onena	Silbestre Bengoa <sup>3</sup>	30 pzta.

Ondoren, hamarrak aldera, gizakien lehiaketak hasi ziren eta, Azkuek berak jaso zuen bezala, aurkeztutakoen artean ez zen arrasatearririk falta:

<sup>3</sup> Aipa dezagun, bidenabar, Silbestre Bengoaren ezpainetatik jaso zuela Azkuek urte batzuk beranduago *Cancionero popular vasco* abesti-bilduman argitaratuko zuen "Jose Mondragonek dauko katua" abestia (518 zkia.).

Mundragoe-k dantzari-aldera, aurrekulari, txistulari ta... lasterkaritan ederto ornidu dauz Aramaio-ko jaiok (*Euskalzale*, 1899-IX-27)

Goizeko frogen artean, eta lasterketariena bukatuta zegoela, eta lekaio onena zeinek bota aritu ondoren, albokariak eta bertsolariak lehiatu ziren bazkaltzeko ordua iritsi arte. Sarituak honako hauek gertatu ziren:

## Lasterkariak

1. saria	Jose Agiriano	30 pzta.
2. saria	Nikolas Mondragon	20 pzta.
3. saria	Felix Irazuegi	10 pzta.

## Zantzolariak edo irrintzilariak

1. saria	Norberto Azkoaga	30 pzta.
2. saria	Basilio Garate	15 pzta.

## Albokariak

1. saria	Martin Larrañaga	30 pzta.
2. saria	—	—

## Bertsolariak<sup>4</sup>

1. saria	—	—
2. saria	Jose Migel Elejoste	20 pzta.
3. saria	Jose Azkoaga	15 pzta.
4. saria	Frantzisko Garamendi	10 pzta.

Bazkalostean, hiru t'erdia aldera, txistularien saioari ekin zitzaion. Taldeka edota bakarka aritu ziren txistulariei alde aurretik adierazi zitzaizen erabat debekatuta izango zela erdal doinurik jotzea. Sarituena, aurreko urtean Kubako gerratik etorritako Roke Amilbururen aita suertatuko zen:

<sup>4</sup> Lehenengo saria hutsik gelditzen zela ikusirik, epaimahaiaik laugarren bat sortzea erabaki zuen.

**Txistulariak**

<b>Taldeka</b>		
1. saria	Sabas Amilburu (laukote onena)	75 pzta.
2. saria	—	
<b>Bakarka</b>		
1. saria	Gillermo Arizaga	50 pzta.
2. saria	Sabas Amilburu	25 pzta.

Musika saioaren bukaeran, emakume gorulariei egokitu zitzairen norgehiagoka aritza. Haien arteko lehia handia izan bazen ere, sarituak honela gelditu ziren:

**Gorulariak**

1. saria	Ines Larrañaga	20 pzta.
2. saria	Bonifazia Irazuegi	10 pzta.
3. saria	Petra Monasterio	5 pzta.

Bostetan, pegardunen sariketan, eskuak gerritik kendu gabe eta pegar bat ur buruan eramanik, ongien eta bizkorren ibili ziren emakumeak honako hauek izan ziren:

**Pegardunak**

1. saria	Maria Nafarrate	15 pzta.
2. saria	Bonifazia Irazuegi	10 pzta.
3. saria	Juana Goikorrota	5 pzta.

Lehen eguneko sariketa-saioen amaiera aureskularietara etorri zen. Arauetan bi sari bakarrik egon arren, epaimahaiak, dantzarien maila ona ikusirik, hiru sari ematea erabaki zuen:

**Aureskulariak**

1. saria	Rafa Agirre	25 pzta.
2. saria	Indalezio Elgea	15 pzta.
3. saria	Seberiano Barrutia	10 pzta.

**BIGARREN EGUNA**

Hurrengo egunean, goizean goiz, zortzirak jotzeko zirenean bildu ziren dantzariak ezpata-dantza saioari ekiteko. Gelditu zaizkigun datuen arabera, maila altuko dantza-taldeak aurkeztu ziren; irabazleak, aldiz, bi baino ezin izan:

**Ezpata-dantzariak**

1. saria	Rafa Agirre eta bere taldea	175 pzta.
2. saria	Juan Pedro Zengotita eta bere taldea	115 pzta.

Hamarretan meza nagusia hasi zen, sermoiaren ardura Euskal Jaieen antolatzaile izandako Azkue abadeari egokitu zitzaionetik. Gorago esan bezala, elizkizunetako gazi-gezak Otxandioko abesbatzak abestu zuen Gorritiren *Si bemol-* eko mezarekin etorri ziren.

Meza bukatutakoan, agintarientzako ohorezko aureskua dantzatu zuen aurreko egunean irabazle suertatutako Rafael Agirrek.

Arratsaldean, Euskal Jaiei amaiera emateko, eta ezpata-dantzari sarituen ikuskizuna burutu ondoren, poesia-lehiaketan aurkeztutako artean irabazle suertatutako lanak irakurri eta egileak sariztatu zituzten.

Ezaguna denez, jaien kategoriaren arabera izan ohi zen parte hartzaileen kopurua eta koblakari edo poeta famatuen eskuhartzea. Aramaioko Batzaldi honetarako poesia-kopurua eta poeta ospetsuena jaien duin azaldu zen. Denetara, hamabost izan ziren aurkeztutako poesiak:

- 1.- "Euskaldun bioletea"
- 2.- "Uxo zerutar bat"
- 3.- "Euskal-Erria"
- 4.- "¡Ama-gabe!"
- 5.- "Gau erdiko eskillaren otsa"
- 6.- "On Anton d'Abbadie jaunari oroimena"
- 7.- "Mundu zoragarriya"
- 8.- "Mari Antoni Aramayoarra"
- 9.- "Abbadie jakintsuentzat talluntza baten ondoren"
- 10.- "Ama baten penak"
- 11.- "Gure Arbola"
- 12.- "¡Negar egin daigun!!"
- 13.- "Ama bat"
- 14.- "Kabira"
- 15.- "Gure Aritza"

Zerrendako lehen hirurak hobetsi ziren: "Euskaldun bioletea", Felipe Arrese-Beitia otxandioarrarena, "Uxo zerutar bat", R.I. Basterra donostiarrak asmatua eta, hirugarrenik, musikatua iritsi zen "Euskal-Erria" poesia, Jose Artola donostiarrarena.

Halere, zegoen saria ("urrezko makilla bat eta ontzurre bateko saria") lehenengo bertso bien egileen artean banatzea proposatu zuten, Arrese Beitiarena "adore edo kementsuagoa ta ederragoa" zelako eta Basterrarena "politagoa ta obeto apaindua" (*Euskalzale*, 1899-IX-7).

Hirugarrenari, hau da, ospetsuago bihurtzeko bidean zen Jose Artolari "gomutagarritxu bat" emango zitzaion saritzat "batez bere bialdu daben eresi edo doiñu ederragaitik" (*Euskalzale*, 1899-IX-7).

Nabarmentzekoa da Arrese Beitiaren (1841-1909) presentzia Aramaioko Euskal Jaietan, garaile suertatuko zen azkenaurreko agerraldia izango baitzuen honako hau. Ordurako, Foruen galera ekarri zuen gerraren ondoko mende bukaera hits hartako poeta enblematikoa bihurtua zen otxandioarra. Ospea, Abbadie-k sortutako Lore Jokoak Hegaldera pasatu ziren lehen aldian (Elizondo, 1879) etorri zitzaion, Kanpion eta Duvoisin bera zeharo unkituta utzi zituen "Ama Euskeriari azken agurrak" izeneko poesiarekin irabazi zuenean. Sarituaren izena euskaltzaleen artean zabaldu zenean (isilka eta sekretupean, egoera politikoak sortutako bildurrak eraginda<sup>5</sup>), askoren harridurarako, Otxandioko santuginarena zela jakin zen. Handik aurrera, ohizkoa bihurtu zen Arrese Beitiaren parte hartzea eta garaipena honelako poesia lehiaketetan.

Aramaioko Euskal Jaien amaieran irakurri ziren poesiak transkribatu aurretik, eta haien kalitate literarioaz inolako baloraziorik egiteko asmorik ez dugun arren, ezinbesteko deritzogu sentimentu eta kontzientziaren arloan Arrese Beitiak egindako ekarpen eskergaz behar bezala ohartarazteari.

Hori dela eta, geure egin nahi genituzke, "Ama Euskeriari azken agurrak" poesiarekin Elizondokoa irabazi ondoren Duvoisinekin eskaini zizkion gorespen-hitzak, izan ere ez baitiogu laudorio apalagorik zor aramaiorrok otxandioarrari berak oparitu zigun "Euskaldun bioletea" poesia eskertzen hasteko:

Zembat ere gizonen orhoitzapenetan iraunen baitu Eskaldunaren omenak, hambat ere errankizunetan biziko da don Felipe de Arrreseren izena. Zure burutik atheratu da, Jaun maite-maitagarria, eskara zaharrak duen ere-

<sup>5</sup> Lehenbiziko saria irabazi zuela argitzerakoan (1879ko urriaren 25ean idatzitako gutuna), honela azaldu zion egoera Duvoisinekin Arrese Beitiari:

"[...errana izan zen etzela Elizondon erantzunen zure eresia ederrak eraman zuela hitz negurtuetako lehenbiziko saria, zeren Nafarroak egun gaitzak ikusten dituen.

Eta nola asko haro tchar baitzerabilan gizonen artean, ziotenaz Gubernua khechu zela Elizondon atherako ziren gauzez eta debeku emanen zuela armadako buruzagiak, Elkargoako jaunak goan ziren buruzagi haren gana eta erran zioten Elizondon etzela politikazko solasik izanen.

Aria hortaz, ez da erantzun deusere orduan hitz neurtuetako sariaren gainean. Baina Iruñar jaunek erran zuten, gutun batean zerorri buruz ezagutaraziko zarotzutela zure eresiak irabazi zuela lehenbiziko saria" (*RIEV* 21, 1930, 363 or.)

sariak ederrena; eta ez bihar, ez gero, ez menderen mende, Eskaldunik izanen deno, ez da galduko gure mendi ibarretan [...]

Bayonatik Parisera eta Parisetik mundu guzira joko du zure eresia bihozgoragarriak, orotan jakin dadien Eskalduna oraino bizi dela Eskalherrietan. Batasun oso bat egin bedi Eskaldun guzien artean. Erdalduna bego Erdaldun; baina guk behar ditugu bihotz bat eta arima bat (Duvoisinekin Arreseri 1879-X-6an idatzitako gutuna, *RIEV* 21, 1930, 360-361 or.)

*Patxi Salaberri Muñoa*

## SARITUTAKO POESIAK

### "Euskaldun bioletea"

#### *Aramaiori goratasuna*

Anboto, Udalatx eta Murugaiñ  
Goiok gorago eregi,  
Ta begiratu zuek gordetan  
Dozuen ibar oneri;  
Euskaldun lorategi eder bat  
Beronek badau irudi  
¿Bioletaren izena ondo  
Eletorkio danoni?

Bioletea izanik berez  
Be-zale umill benetan,  
Bedar artean lotsaz legetxe  
Dana, albadau gordetan;  
Bertzolariak, baiña alan bere  
Umilltasuna goietan  
¿Eztabe iarten euren kantakaz  
Lekurik ederrenetan?

Ta bioleta be-zaletxo bat  
Ibar au mendiz gorderik,  
Irudituten baiat, nik ¿zelan  
Itxi gaur iazo bagarik?  
¿Zelan Araban berau izanda  
Euskaldun utsa bakarrik,  
Bertan lorarik ederren dala,  
Eztot kantauko emen nik?

Kantauko dot nik ibar au dala  
Arabar danen ondrea,  
Kantauko dot nik berau gaur dala  
Euskaldun bioletea;  
Kantauko dot nik dala pitxi bat  
Motzak ezaindu bagea,  
Euskal-usaiña baiño besterik  
Iausten etxakon lorea.

Kantauko dot bai, kantau gizaldi  
Asko ein arren munduan,  
garbia dala au oituretan  
Bertako erreken moduan;  
Mendi ederrez inguraturik  
Ementxe bakar lekuan,  
Lan egunez da gabez lo einda  
Euskera Amaren altsuan.

Onek dirudi Euskerearen  
Alaba berarizkua,  
Pitxiletakaz dabena iarten  
Txukun txukunik burua;  
Dalako berau milla abia  
Zuri zurien lekua,  
Eta ainbeste santutegien  
Esparru eder dontsua.



Toki autua benetan zara  
Ainbeste eleizaz iantzita,  
Ibar malats bat zu Aramaio  
Etxalde ederrez iosita;  
Murugaiñdik nik zuri begira  
Kerizpetxoan iarrita,  
Zeinbat alditan esan ete dot  
¿Zu zareala polita?

Damugarri litzake baiña  
Gozetan dozun gloria,  
Ikusitea dana galduta  
Zu buruz beera iarrira;  
Damugarria izanik zu gaur  
Euskaldun bizi tokia,  
Amai edaten gero ikustea  
Umeak erdal titia.

Damugarria litzake bada  
Osasunagaz Euskera,  
Zugan gaur bizi eginda biar  
Bialdutea lurpera;  
Baiña, mendiok zutik badagoz  
Lotsa bagako erdera,  
¿Azartuko da ¡o! Aramaio  
Zure izketau illtera?

Orretariko arerio ta  
Etsai ain gerralaria  
Sartu eztedin inguru inguru  
Iarri egizu esia;  
Orren azpira makurtu baiño  
Lenago erabagia,  
Artu egizu, zein azpiratu  
Iokatuteko bizia.

Zure erripak, zure aldatsak,  
Zure tontorrek euskeraz,  
Zainduten dabez euren izenak  
Aldatu бага bestegaz;  
Eta iñozko alditan deitu  
Egin baiño len erderaz,  
¡lausai zaitetze txuntxurrok danok  
Arroetara tuterraz!!!

Ez orrenbeste, ez Aramaio,  
Iarraitutea euskaldun,  
Nai dozulako, euskal-iaiokaz  
Eiten zaitue ezagun;  
Kantau daikezu arabar izan  
Arren, enaz ni erdaldun,  
Ze odol dodan, beti euskeraz  
Autortuko dot edonun.

Oraindik zure iturriok nai  
Dabe iarraitu batera,  
Lorik egin бага kantetan beti  
“Bizi bekigu Euskera”;  
Baita mendiok berdez nai dabe  
Iantzi urtero aurrera,  
Igartu eta esan eztedin  
Egin dirala Gaztela.

Kantau begie “Anbotok zarden  
Gordetan badau burua,  
Baita Aramaiok ondo zaiñduko  
Dau Euskera Ama atsua;  
Atsoa izan arren Euskera  
Dalako garbi gozua,  
Ez dakiana iñoz loituten  
Iaunaren izen Santua”.

¡O! Ama maite Euskera zarra,  
Iaungoikoaren izena  
Mundu guztian ondo esaten  
Zu zara iakitunena;  
Zergaitik goian bizi dalako  
Iabea guztioena,  
Beraz arentzat ¿non da izenik  
Euskalduna duiñ ederra?

Bene benetan beretzako da  
Egokien Iaungoikua,  
Bere Erreiñu berarizkoa  
Zergaitik iakon Zerua;  
Eta Zerua izarrak baiño  
Dalako goragokua,  
¿Nondik ta nora deitu eikeon  
Euskerak iaun bat bekua?

Dalako goiko Iauna deusagu  
Iaungoikoa emen deituten,  
Beste izenik baiño geiago  
Berak gu gaitu poztuten;  
Berak *Dios* -ek baiño geiago  
Biotza deusku samurtzen,  
Samurtasunez euskera bestek  
Eztabelako bardintzen.

Argizagia bera baiño da  
Euskera epatzagoa,  
Eztia bera dan baiño bere  
Gozo ta eztiagoa,  
Dontsua ume Ama daukana  
Euskaldun garbi osoa,  
Titiaz naste edan dagion  
Berbeta Iaungoikozkoa.

Emen alantxe orain arte da  
Oinietik oinera edan,  
Euskera utsik, ta beraugaitik  
Bizi da bizi dan eran;  
Zorioneko iaio ziranak  
Eta ill euren Euskeran,  
Eztabe orain damu izango  
Ez bizi izana Gaztelan.

Ainbeste milla urtetan eben  
Emen alantxe iarraitu,  
Eta gu bere bide erdian  
Ezkaitezen gaur geratu;  
Euskal azia ereiten arren  
Danok gaitezen dendatu,  
Eta euskaldun semeak iaio  
Egingo dira ziurtu.

Bai, Aramaio, gura badozu  
Izan zorionekua,  
Maitetu zeure guraso zarren  
Berbeta garbi gozua;  
Gordeizu arren ill arteraiño  
Euskera bedeinkatua,  
Nok dirudian Paradisura  
Zerutik iatsitakua.

### Felipe Arrese Beitia

### “Uxo zerutar bat”

Luma zuridun uxu eder bat  
Berdingabea guztian,  
Ta ez lurreko, baizik zeruko  
Txori politen antzian,  
Zeruetatik itzul egiña  
Laisterka ega bizian;  
Nola eguzkia azaldu oi da  
Pozkiro eun sentian,  
Margo gorriak guztiz gorriak  
Dituela masallian  
Ta farrez mundu zabal denari  
Bezela, mendi tartian?...  
Nola izarra ikusi oi du  
Argi argi zerupian,

Pozez beterik arrantzaliak  
Nagargarrizko gabian?...  
Nola naigabe ta atsekabe  
Askotxoan ondorian,  
Senti oi degu poz ta atsegiña  
Gure biotzen erdian?...  
Ala azaldu da uxu ederra  
Zuri-garbia lurrian,  
Zerbait albista daramalarik  
Bere moko muturrian,  
Eta or dabill ego bitartez  
Jira ta bira aidian,  
Lurbira dena alaiturikan  
Orla dabillen artian.

Igaro ditu soro-basoak  
 Egotxoak astindurik,  
 Zenbat ibar ta erritaldeak  
 Zenbat urruti utzirik!  
 Eta atzean diran lekuak  
 Daude atsekabeturik,  
 Zergaitik eztan toki aientzat  
 Iñolaz itxaropenik  
 Txori ederra, berdingabea  
 Bertan geldituko danik!...  
 Atzo ziraden zorioneko  
 Erriak oso pozturik,  
 Eta zerutar txoriarentzat  
 Ostatu onak bakarrik,  
 Orain igaro dalako uxoa  
 Urruti ezkutaturik,  
 Ezta aientzat negarra aski  
 Ezere malko sendorik,  
 Naigabe ura aurkeztatzeko,  
 Senti dutena biotzik.

.....  
 Jarrai zaiogun uxu txuriei,  
 Goazen beraren ondolik.

.....

Eta dijoa txori laztana  
 Odoi beltzaren albotik,  
 batak besteak baiñan aguro  
 Bidea igaro nairik.  
 Itsaso zabal neurri gabea  
 Utzi du ere atzetik,  
 Ta aldakizute uxu ederra,  
 Non arkitzen dan geldirik,  
 Bere egoak ondo poliki  
 Bizkar gaiñean itxirik?  
 Aldakizute nongo asmoaz  
 Jeixi dan egan zerutik,  
 Ote dan iñon txoriarentzat  
 Lurbira denan lekurik,  
 Uxu ederrak merezi duen  
 Ostatu berdingaberik?...  
 Non gelditu da uxu laztana  
 Elur margoaz jantzirik  
 Zeruko albistak dituelarik  
 Zintzilik bere mokotik?

.....  
 Euskalerrian... ¡ta dagoela  
 Bertan luzaro oraindik!

.....

Argatik dago Euskalerria  
 Pozaren pozikan dena,  
 Argatik urrin bere biotzik  
 Dago negarraren kemena,  
 Berekin dala bildu aleiken  
 Alaitasunik geiena,  
 Mendi tantaiak, baso, ibarrak  
 Txarak, zelai ederrena  
 Zer jantzi eder, uxu txurien  
 Etorrerako dutena?  
 Zer mur-mur eder entzungarria  
 Zer eder iturriena,  
 Eta laisterka errekatxoan  
 Dijoan ur leiarrena,  
 Poza ta atsegin biotzerako  
 Ezti-ezti dakarrena!

Itsas andiko bagak dijoaz  
 Galdutzen beren almena,  
 Eldurik itsas-bazterreraiño  
 Al duten guztiz lenena,  
 Eta musu bat ondar pillari  
 Emanik azken-azkena.  
 Baserri-ondoko zugatz guztitan  
 Txori aldrikan onena  
 Dago kantari Euskalerriak  
 Merezi duen omena,  
 Eldu dalako bere lurrera  
 Uxu zoragarriena,  
 Bere mokoan zeruko albistak  
 Bai ekarri dituena.  
 Euskalerria oso dalako  
 Jaungoiko Altsurena!  
 ¡Ongi etorri uxu ederra:  
 Maizago etorri urrena!

R.I. Basterrarena

### “Euskalerria”

Tubal aurren euskal izkera  
 mintzatutzera,  
 zan etorri;  
 arrek zuen gure lurrera,  
 zorionera  
 au ekarri;  
 baso, mendi ta zelaitara,  
 danetara,  
 pozgarri,  
 legetzat zigun ark guri jarri.

Mendi tontor, basamortuan,  
 artzai lekuan,  
 bazterretan;  
 etxol zarrak duen txokoan,  
 arkaitz zuloan,  
 ibaietan;  
 euskal izkera da goguan  
 ta barruan,  
 danetan;  
 mintzatzen dira denak benetan.

Zazpi seme benetakoak,  
 odolekoak,  
 gera anai;  
 Auñemendi ingurukoak,  
 jaiotakoak,  
 gabiltz ernai;  
 euskalzale biotzekoak  
 maitatuak  
 ere bai,  
 ausardiz azaldutzen gera non nai.

Itsas gizon txit maitatiak,  
 aundi txikiak,  
 itsasoan,  
 euskal mintza dira guziak,  
 aiñ egokiak,  
 bateltxoan;  
 fede onarekin jantziak  
 txit garbiak  
 barruan  
 aukeraz bizi dira munduan.

Ama batek bere aurtxoa,  
 bildotxatxoa,  
 du maitatzen,  
 sustraietatik titi gozoa  
 sumo osoa  
 dio ematen  
 euskal izkeran kantatxoa,  
 edertxoa  
 du esaten,  
 gerora berak jakin dezaten.

J. Artola